

## 7

### Errenten egozpena eta esleipena

- 7.1 Aldi baterako enpresa batasunak (ABEB) eta interes ekonomikoko taldeak (IET).
- 7.2 Nazioarteko gardentasun fiskaleko erregimena
  - 7.2.1 Nori egotziko zaio lurralde espainiarrean egoitza ez duen gardentasun fiskaleko entitate batek lortutako errenta positiboa?
  - 7.2.2 Zeintzuk dira egotzi beharreko errentak ?
  - 7.2.3 Nolako betebeharrak izango dira nazioarteko gardentasun fiskaleko erregimenean sartuz gero?
- 7.3 Nola tributatuko dute *paradisu fiskaletan* eratutako inbertsio fondoen bazkide edo partaideek?
- 7.4 Errenten esleipena



## 7.1 Aldi baterako enpresa batasunak (ABEB) eta interes ekonomikoko taldeak (IET)

Aldi baterako enpresa batasunak nortasun juridiko propiorik gabeko entitateak dira. Zehaztutako edo zehaztu gabeko denboraldi jakin batean enpresak elkarlanean aritzeko sortzen dira, eta obra, zerbitzu edo hornikuntza jakin bat (elementu osagarriak barne) Espainian zein Espainiatik kanpo garatu edo gauzatzea dute helburu.

Enpresen arteko elkarlanerako elkarteak dira ABEBak, beren kideen jarduera ekonomikoa erraztu edo garatzeko sortuak.

Aldi baterako enpresa batasunak arautzen dituen legeak Espainian helbideratuta dauden interes ekonomikoko talde europarrak ere biltzen ditu bere baitan. Azken hauek lehen-dabizikoen baliokideak dira, baina Europar Batasunaren esparruan.

Bai batzuek eta bai besteek zerga erregimen berezia dute, neurri handi batean, aldi baterako enpresa batasunei aplikatzen zaienaren parekoa.

Aldi baterako enpresa batasunek eta interes ekonomikoko taldeek lortutako errentak Sozietateen gaineko Zergaren araudiaren arabera kalkulatuzen dira. Bazkideei egotzen zaizkie, haietako bakoitzak, pertsona fisikoak izanez gero, Errenta Zergan aitortu ditzan.

## 7.2 Nazioarteko gardentasun fiskaleko erregimena

### 7.2.1 Nori egotziko zaio lurralde espainiarrean egoitza ez duen gardentasun fiskaleko entitate batek lortutako errenta positiboa?

Bazkideei egotzi behar zaie egoitza espainiar lurraldean ez duen entitate batek lortutako errenta positiboa. Horretarako, errenta horrek aurrerago zehaztuko direnetako bat izan behar du eta, gainera, zirkunstantzia hauek bete behar dira:

1. Egoitza lurralde espainiarrean ez duen entitatearen kapitalean, fondo propioetan, emaitzetan edo boto eskubidean %50eko edo hortik gorako partaidetza izatea bazkide horiek, sozietatearen ekitaldia ixteko egunean. Dena den, bazkideek bakarrik edo entitate lotuekin batera eduki dezakete partaidetza hori, Sozietateen gaineko Zergaren araudian jasotakoaren arabera, edo, bestela, zuzeneko nahiz zeharkako ahaidetasun harreman batengatik lotuta dauden beste zergadun batzuekin batera, ezkontidea edo izatezko bikote laguna barruan dela –maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikotea bada-, bigarren mailaraino, hau barne. Harreman hori izan daiteke odolkitetasunezkoa, ezkontza bidezkoa edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikoteak ekar lezakeena.
2. Espainian bizi diren pertsona edo egoitza bertan duten entitate lotuentzat zehazten den zeharkako partaidetza zenbatekoa kontuan izanik neurtuko da elkarri lotutako entitate ez-egoiarren partaidetza.
3. Erantsi beharreko errenta positiboaren zenbatekoa emaitzetan parte hartzearen edo, halakorik ez badago, entitatearen kapital, berezko fondo, edo boto eskubidean parte hartzearen proportzioan zehaztuko da.
4. Sozietateen gaineko Zergaren izaera berbera edo antzekoa duen kargagatik Espainian egoiliarra ez den entitateak ordaindu duen zenbatekoa, segidan zehaztuko

diren errenta motetakoren bati egotzitakoa, aipatu zergaren arauari jarraiki egokituko zitzaionaren %75 baino txikiagoa izatea.

### 7.2.2 Zeintzuk dira egotzi beharreko errentak?

Ondoko iturri hauek direla medio sozietateak izandako errenta positiboa bakarrik egotziko zaie bazkideei:

1. Ondasun higiezin landatar edo hiritarren edo horiei dagozkien eskubide errealeen titularitatea, baldin eta enpresa jarduera bati atxikita ez badaude edo, Merkataritza Kodeko 42. artikuluari jarraituz, entitate titularraren sozietate talde berekoak diren entitate ez-egoiarrei erabilerarako lagata ez badaude
2. Sozietatearen akzio eta maileguak, bai eta edozein motatako entitateen fondoetako partaidetza eta kapital propioen hiru garrentzako lagapena ere.

Letra honetan ez da honako finantza aktibo hauetatik datorren errenta positiborik sartuko:

- Sozietateak dituen aktibo finantzarioak, jarduera enpresarialak egitean sortutako lege eta erregelamenduzko betebeharrak konplitzeko.
- Sozietatearen jardura enpresarialen ondorioz finkatutako kontratuzko harremanetatik sortutako kreditu eskubideak txertatzen dituzten aktibo finantzarioak.
- Baloreen merkatu ofizialetan bitartekaritza jarduerak gauzatzearen ondorioz edukitako aktibo finantzarioak.
- Kreditu entitateek eta aseguru etxeek jardura enpresarialen ondorioz dituzten aktibo finantzarioak, ondorengo 3. puntuan finkatutakoari utzi gabe.

Norbere kapitalak hiru garren batzuei lagatzen (maileguak) ondorioztatutako errenta positiboa ondorengo 3. puntuan aipatutako kreditu eta finantza jarduerak gauzatzen datorrela ulertuko da, lagatzailea eta lagapen hartzailea, Merkataritza Kodeko 42. artikulua arabera, sozietate talde bateko kide direnean eta lagapen hartzailearen diru sarreren %85, gutxienez, jardura enpresarialak gauzatzen dituzten heinean.

3. Kreditu, finantza, aseguru eta zerbitzuak (esportazio jarduerekin zuzenean lotutakoak izan ezik) emateko jarduerak, zuzenean edo zeharka, egoitza lurralde espainiarrean duten eta Sozietateen gaineko Zergaren araudian adierazitako zentzuan elkarrekin lotuta dauden pertsona edo entitateekin, aipatu egoiliarren gastu kenkaridunak zehazten dituzten heinean.
4. Errenta positiboa ez da kontuan hartuko egoitza lurralde espainiarrean ez duen entitateak egindako kreditu, finantza, aseguru eta zerbitzuak (esportazio jarduerekin zuzenean lotutakoak izan ezik) emateko jardueretatik eratorritako diru sarreren %50 baino gehiago Sozietateen gaineko Zergaren araudian adierazitako zentzuan elkarrekin lotu gabeko pertsona edo entitateekin gauzatutako eragiketetatik datorrenean.
4. Ondare irabazi eta galerak eragiten dituzten aurreko 1. eta 2. puntuetan aipatutako ondasun eta eskubideen eskualdaketak.

Halere, **bi salbuespen** daude aurreko 1., 2. eta 4. puntuetan jasotako errentei dagokienez:

- Lehen salbuespena. Aurreko 1., 2. eta 4. puntuetan aurreikusitako eta entitate ez-egoiarrek lortutako

errentak ez dira kontuan izango honek, zuzenean edo zeharka, %5 baino gehiagoko partaidetza duen entitateetatik etortzen badira, honako bi baldintza hauek betetzen direnean:

- Entitate ez-egoiliarrek partaidetzak zuzentzea eta kudeatzea, gauza eta giza baliabideen antolaketaren bitartez.
- Sozietateak errentak lortzen dituen entitateen diru sarreraren %85, gutxienez, jarduera enpresarialen ondoriozkoak izatea.

Aurreko 1., 2. eta 4. puntuetan jasotako errentak hartuko dira jarduera enpresarialetatik eratorritzat, baldin eta jatorria sarreraren %85 gutxienez jarduera enpresarialen ondorioz lortu dituzten entitateetan badago (lehen salbuespenean jarritako bi baldintzetako lehena) eta sozietate ez-egoiliarrek zuzenean edo zeharka entitate haietan duen partaidetza %5etik gorakoa bada.

- Bigarren salbuespena. Era berean, aurreko apartatuko 1., 2. eta 4. puntuetan aurreikusitako errentak ez dira egotziko, zenbatekoen batura errenta osoaren %15 edo entitate ez-egoiliarren diru sarrera osoen %4 baino txikiagoa denean.

Bigarren salbuespen horretan finkatutako mugek egoitza espainiar lurraldean ez duten eta Merkataritza Kodeko 42. artikulua zentzuan sozietate talde bateko kide diren entitateek lortutako errenta edo diru sarrerak kontuan hartu ahal izango dituzte.

Inola ere ez da egotziko entitate ez-egoiliarren errenta osoa baino handiagoa den kopurua.

Zergadunaren zerga oinarrian ez da egotziko sozietateak ordaindutako Sozietateen gaineko Zergaren berdina edo antzekoa den zergarik, txertatu beharreko errentaren zatian.

1., 2., 3. eta 4. puntuetako errenta positiboak zerga oinarri orokorrean egotziko dira.

7.2.1 apartatuko 1. puntuaren barruan dauden zergadunei dagokiena egotziko zaie, entitate ez-egoiliarren zuzenean parte hartzen badute edota parte hartzea zeharkakoa bada (beste entitate ez-egoiliar baten edo batzuen bitartez). Azken kasu horretan, errenta positiboaren zenbatekoa zeharkako partaidetzari dagokiona izango da.

Bazkidearen zerga oinarrian egotzi beharreko errenta positiboa Sozietateen gaineko Zergan zerga oinarria zehazteko finkatutako printzipio eta irizpideen arabera kalkulatu da. Errenta osotzat hartuko da printzipio eta irizpide horiek aplikatuz ateratzen den zerga oinarriaren zenbatekoa. Ondorio horietarako, lurralde espainiarrean egoitzarik ez duen entitatearen ekitaldi soziala ixtean indarrean dagoen kanbio tasa erabiliko da.

Dibidenduak eta mozkin-partaidetzak ez dira egotziko, egoitza dagoen errenta positiboari dagokion zatian. Tratamendu berbera emango zaie konturako dibidenduei.

Erreserbak banatzekotan, akordio sozialean jasotako izendapenari egingo zaio kasu, eta erreserba horietara zuzendutako azken kopuruak hartuko dira aplikatuztat.

Errenta positibo bera behin bakarrik egotzi daiteke, nola eta zein entitateetan sortzen den kontuan hartu gabe.

Entitate partizipatuak **paradisu fiskal moduan** kalifikatutako herri edo lurraldeetan denean, honakoa uste izango da, non eta aurkako frogak aurkeztu ez den:

- Sozietate Zergaren berdina edo antzekoa den karga tasa dela eta sozietateak ordaindu dituen errenta mota haietako baten bati egotzitako zenbatekoa txikiagoa

dela Sozietate Zergaren arauak aplikatuz gero ordainduko zuenaren %75 baino.

- Entitate partizipatuak lortutako errenta gorago aipatutako errenta iturrietatik datorrela.
  - Entitate partizipatuak lortutako errenta partaidetzaren eskurapen balioaren %15 dela.

Aurreko letretan jasotako presuntzioak ez dira aplikatuko entitate partizipatuak errenta sartzera behartutako beste entitate batekin edo batzuekin bere kontuak bateratu arte, Merkataritza Kodeko 42. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

### **Noiz aitortu behar du bazkideak errenta nazioarteko gardentasun fiskaleko erregimenean?**

Entitate ez-egoiliarretik datorren errenta positiboaren egozpena sozietate horrek ekitaldia amaitu duen egunari dagokion zergaldian egotziko da errenta positiboa. Horretarako, ezin izango da ulertu hamabi hilabete baino luzeagoa denik, non eta bazkideak ez duen aukeratzen errenta sozietatearen ekitaldiko kontuen onarpen egunari dagokion zergaldian sartzea, baldin eta ez badira sei hilabete baino gehiago iragan ekitaldi hori amaitu zenetik.

Bazkideak aukera hori agertuko du ondorioa izan behar duen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren lehen aitopenean, eta hiru urtez eutsi beharko dio.

### **Egoiliarren Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuotaren kenkaria**

Dibidendu edo partaidetzen banaketa dela eta sozietateak atzerrian benetan ordaindutako zerga edo karga, zergapez bikoitza saihesteko hitzarmen batengatik izan edo herri edo lurralde jakin baten barruko legeengatik izan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuota osotik kendu ahal izango da bazkideari egotzi edo zerga oinarrian sartu den errenta positiboari dagokion zatian.

Zergak errenta sartu zenaz bestelako zergaldiei badagozkie ere, kenkari hori egingo da.

Kenkaria ez da handiagoa izango zerga oinarrian egotzitako errenta positiboagatik Espainian ordaindu beharko zen kuota osoa baino.

Inoiz ere ez dira kenkaridunak izango paradisu fiskaltzat kalifikatutako herri edo lurraldeetan ordaindutako zergak.

### **Nola kalkulatu da errenta bazkideak bere partaidetza saltzen duenean?**

Partaidetza zuzenean edo zeharka eskualdatuz lortutako errenta kalkulatzeko, ondare sozietateetako partaidetzen eskualdaketa arau orokorrak<sup>81</sup> erabiliko dira, zerga oinarrian egotzitako errenta positiboari dagokionez. Arau horietan aipatutako sozietate mozkinak zerga oinarrian egotzitako errenta positiboari dagozkionak izango dira.

### **7.2.3 Nolako betebeharrak izango dira nazioarteko gardentasun fiskaleko erregimenean sartuz gero?**

Erregimen berezi horretarako bildutako bazkideek, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitopenearekin batera, ondoko datuak aurkeztuko dituzte lurralde espainiarrean egoiliar ez den sozietateari buruz:

- Izena edo sozietatearen izena, eta sozietatearen helbidea.
- Sozietatearen administratzaileen zerrenda.

81 Ikus 6. kapituluaren barruan, ondare irabazi eta galerak izenekoan, ageri den 6.3.3 apartatua, ondare erregimenean dauden sozietateen balore edo kapital partaidetzei buruzkoa.

- Sozietatearen balantzea, eta galera eta irabazien kontua.
- Bazkideen egotzi beharreko errenta positiboa.
- Sozietateak bazkideei egotzi beharreko errenta positiboari dagokionez ordaindu dituen zergen frogagiriak.

Erregimen honetarako jasotakoaz gain, Espainiako barruko lege antolamenduan sartutako nazioarteko itun eta hitzarmenak hartuko dira kontuan.

7.2 apartatu honetan jasotakoa ez da aplikatuko lurralde espainiarrean egoiliar ez den entitateak Europar Batasuneko beste estatu batean egoitza duenean, betiere zergadunak frogatzen bada bertan eratzeko eta jarduteko arrazoi ekonomiko baliodunak izan direla eta jarduera enpresariak egiten dituela.

### 7.3 Nola tributatuko dute paradisu fiskaltzat hartutako herrietan eratutako inbertsio fondoek bazkide edo partaideek?

*Paradisu fiskaltzat* hartutako herri edo lurraldeetan eratutako *inbertsio kolektiboko erakundeetan* (inbertsio fondoetan) parte hartzen duten zergadunek zenbateko hau egotziko dute zerga oinarri orokorrean: zergaldiaren itxiera egunean partaidezak duen likidazio balioaren eta eskurapen balioaren arteko diferentzia positiboa. Aurkakoa frogatzen ez bada, diferentzia hori akzio edo partaidetzaren eskurapen balioaren %15ekoa dela ulertuko da.

Oinarrian egotzitako kopurua eskurapen balio handiagotzat hartuko da.

Inbertsio kolektiboko erakunde horiek banatutako mozkinak ez dira egotziko. Partaidetzaren eskurapen balioa gutxituko dute.

Akzioak edo partaidetzak eskualdatu edo ordaintzetik erarritako errenta kalkulatzeko, inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzen eskualdaketarako ezarritako erregela orokorrak erabiliko dira. Horretarako, eskurapen balioetat hartuko da aurreko apartatuetan aurreikusitakoa aplikatuztik ateratzen dena.

### 7.4 Errenten esleipena

#### Azalpena

Honako hauek hartuko dira errentak esleitzeko erregimenera bildutako entitateetat:

- Sozietate zibilak, nortasun juridikoa izan edo ez.
- Banatu gabeko herentziak.
- Ondasun komunitateak.
- Nahiz eta nortasun juridikorik ez izan, zergapetu daitekeen unitate ekonomiko edo ondare berezia eratzten duten gainerako entitateak.
- Atzerrian eratutako entitateak, baldin eta haien izaera juridikoa Espainiako legeen arabera eratutako errenten esleipen erregimeneko entitateen berdina edo antzekoa bada.

Eraldaketa nekazaritza sozietateei ez zaie errentak esleitzeko erregimena aplikatuko, Sozietateen gaineko Zergaren arabera tributatuko baitute.

#### Nork ordaindu behar du zerga?

Bazkide, oinordeko, komunero edo partaideei egotziko zaizkie errenten esleipen erregimenean dauden entitateen errentak, kasu bakoitzean aplikagarri diren arau edo itunen arabera. Baldin eta Zerga Administrazioak ez badu arau edo itun horien froga sinesgarriarik, errentak zati berdinetan egotziko zaizkie.

**LABURPENA:** bazkideek, oinordekoek, komuneroek edo partaideek ordaindu beharko dute zerga.

#### Nola ordainduko da zerga?

Errentak egotzen dituzten entitateek ez dute Sozietateen gaineko Zerga ordaindu behar, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga baizik.

Esleipen erregimenean dauden entitateek bazkide, oinordeko, komunero edo partaideei esleitutako errentek haietako bakoitzarentzat errentak erarortzen diren jarduera edo errenta-iturriaren izaera izango dute.

Bereziki, errentak egotzen dituen entitate batek jarduera ekonomiko bat garatzen duenean, jarduera horren etekinak izaera hori bera izango dute entitate horretako partaidezarentzat, baldin eta horiek beren kontura, pertsonalki eta zuzenean kudeatzen badituzte jarduerari atxikitako produkzio bide eta giza baliabideak.

Hala ere, egotzitako etekinak kapialetik erarortiak direla ulertuko da baldin eta bazkide, oinordeko, komunero edo partaideek jardueran esku hartzen ez badute eta entitatean duten partaidetza bakarra kapitala jartzera mugatzen bada. Kasu horretan, egotz daitekeen etekina gehienez ere jarritako kapitalaren %15ekoa dela ulertuko da, kontrakoa frogatzen ez bada behintzat.

#### Nola kalkulatu dira esleitu beharreko errenta eta konturako ordainketak?

Bazkide, oinordeko, komunero edo bazkide bakoitzari esleitu beharreko errentak kalkulatzeko honako erregelak aplikatuko dira:

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arauen arabera kalkulatu dira errentak, eta ondoko kasuan ez dira aplikagarriak izango aurreikusita dauden integrazio portzentajeak: jarduera ekonomikoaren, etxebizitzatik ez datorren kapital higiezinaren, edo kapital higigarriaren<sup>82</sup> etekin garbia bi edo bost urtetik gorako epean sortu denean eta aldizka edo noizean behin lortu ez denean, edo denboran zehar era irregular nabarmenean lortutakotzat erregelamenduz kalifikatzen denean. Honako berezitasunak hartuko dira kontuan:
  - a) Esleitu daitekeen errenta Sozietateen gaineko Zergaren aradian jasotakoaren arabera zehaztuko da kasu honetan: errenten esleipen araubidean dagoen entitateko kide guztiak zerga horretako subjektu pasibo edo Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren establezimendu iraunkorreko zergadun direnean, baina bakarrik lehenengo kasuan ez badira ondare sozietatetzat jotakoak.
  - b) Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan establezimendu iraunkorreko zergadunei esleitu dakiekeen errenta zehazteko, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 26ko 2/1999 Foru Arauaren IV. kapituluaren jasotakoari jarraituko zaio.
  - c) Errenten esleipen araubidean dagoen entitateko kideei esleitu dakiekeen errenta kalkulatzeko (Sozie-

82 Kapital higigarriaren etekinak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauaren 40. artikuluan daude araututa.

tateen gaineko Zergaren subjektu pasiboak izan edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan zergadun izan, establezimendu iraunkorrekoak zein establezimendu iraunkorrik gabeak, baina pertsona fisiko ez direnak), ez da aplikatuko abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauaren lehen xedapen iragankorrean ezarritakoa, errenta hori jarduera ekonomikoen garapenari ez dagozkion elementuak eskualdatzetik eratorri diren ondare irabazietatik sortutakoa bada. 1994ko abenduaren 31 baino lehen eskuratutako ondare elementuetatik eratorritako ondare irabazien zenbatekoa nola kalkulatu ezartzen du xedapen horrek.

2. Aurreko lehen erregelari adierazitakoaren arabera zehaztuko da Zerga honen edo Sozietateen gaineko Zergaren zergadun diren bazkide, oinordeko, erkideei edo partaideei (atzerrian eratu den eta errenten esleipen araubidean dagoen entitate bateko kide direnean) esleitu dakiekeen errentaren zatia.
3. Errentak esleitzen dituen entitateak atzerrian lortzen baditu errentak, eta atzerriko herrialde horrek ez badu Espainiarekin sinatu zergapetze bikoitza saihesteko eta informazioa elkarri trukatzeko hitzarmenik, errenta negatiboak ez dira konputatuko herrialde berean lortu eta iturri beretik datozen errenta positiboak baino handiagoak direnean.

Soberakina ondorengo lau urteen barruan konputatuko da, hirugarren erregelari adierazitakoaren arabera.

Errentak esleitzeko erregimenean dauden entitateei ordaindutako errentak atxikipenari edo konturako sarrerari lotuta izango dira, Errenta Zergaren arauari jarraituta. Berdion dio beren kide bat edo guztiak diren zerga honen zergadunak, Sozietateen gaineko Zergan subjektu pasiboak edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunak. Atxikipen edo konturako sarrera hori bazkide, oinordeko, erkide edo partaidearen ezarpen pertsonaletik kenduko da, errentak esleitzen zaizkion proportzio berean.

Kasu bakoitzean aplika daitezkeen arau edo itunen arabera esleituko zaizkie errentak bazkide, oinordeko, erkide edo partaideei, eta Zerga Administrazioak ez badu zalantzarik gabeko horien berririk, zati berdinetan esleituko zaie.

Errentak esleitzen dituen entitateko kideek, zerga hau ordaindu beharra edukiz gero, eskubidea dute aurreikusita dauden integrazio portzentajeak aplikatzeko badin eta jarduera ekonomikoaren, etxebizitzatik ez datorren kapital higiezinaren, edo kapital higigarriaren<sup>83</sup> etekin garbia bi edo bost urtetik gorako

epean sortuta badago eta aldizka edo noizean behin lortu ez bada, edo denbora zehar era irregular nabarmenean lortutakotzat erregelamenduz kalifikatzen denean.

Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboak eta establezimendu iraunkorra duten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunak errentak esleitzeko erregimenean dagoen entitate bateko kide direnean eta entitate horrek inbertsio kolektiboko akzio edo partaidetzak eskuratzen dituztenean, euren zerga oinarrian integratuko dute akzio edo partaidetza horien gainetik kontabilizatutako edo kontabilizatu beharreko errenten zenbatekoa. Halaber, euren zerga oinarrian integratuko dute kapital propioetatik hirugarren batzuei lagatako kapital higigarriaren etekin zenbatekoa, etekin horiek errentak esleitzeko erregimenean dagoen entitatearen alde sortu direnean.

#### **Errentak esleitzeko erregimenean dauden entitateek informatzeko duten obligazioa**

Errentak esleitzen dituzten entitateek aitorpen informatiboa aurkeztu beharko dute, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak onartzen duen ereduaren bidez. Bazkide, oinordeko, komunero edo partaideei esleitu beharreko errentak adieraziko dira aitorpen horretan, lurralde espainiarrean egoilarrak izan edo ez.

Informatzeko obligazioa honako hauek bete beharko dute: errentak esleitzen dituen entitatearen ordezkariak, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak -Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak- 45.3 artikuluan jasotakoaren arabera hala izendatua izan denean, edo, entitateak atzerrian eratu badira, entitateko kideek, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunak edo Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboak direnean.

Jarduera ekonomikorik egiten ez badute eta beren urteko errentak 3.000 eurotik gorakoak ez badira, errentak esleitzen dituzten entitateek ez dute aitorpen informatiborik aurkeztu beharko.

Errenten esleipen erregimeneko entitateek bazkideei, oinordekoei, komuneroei edo partaideei jakinarazi beharko dizkiete entitatearen errenta osoa eta haietako bakoitzari esleitu beharreko errenta.

83 Kapital higigarriaren etekinak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauaren 40. artikuluan daude araututa.